

PROPOSAMENA, DONOSTIAKO UDALAK INPLEMENTATZEN DITUEN GAZTE POLITIKEEI JARRAIPENA EGITEKO BATZORDE EZ IRAUNKORRA SORTZEKO

Indarrean dagoen Udalbatzaren Araudi Organikoak 148. artikuluan ezartzen duenez, batzorde ez iraunkorrek eratu daitezke, udal talde batek proposatuta, besteak beste –eta Udalbatzak alde aurretik adostasuna emanda–, zeregin jakin baterako, zerbait ikertzeko, proposamenak egiteko edo antzeko helbururen baterako. Ez dute erabakitze ahalmenik izango.

2015eko irailetik hona, Gazte politiketako zinegotzi ordezkariari, Gazte bulegoan kudeatzen ari diren programa ezberdinen interesarengatik sarritan galdetu diogu eta solasaldietan, Gazte bulegoko politika zabala eta konpartituaren adostasuna mahaigaineratu da. Elkarrizketa horietan ere sarritan, parte hartze hori bermatzeko Batzorde ez iraunkor baten proposamena onetsi izan da.

Sei hilabeteren ondoren, ez zitzaigun Gazte Bulegoa kudeatzeko politiken inguruko azalpen eta parte hartzera deitu.

Pasa den martxoan Gazteriako zinegotzi ordezkariak udal taldeok elkartu gintuen, eta bileran jakin genuen, urtebete eta gero, plana geldirik dagoela eta zerbitzuan horri erantzun aurretik, lana birplanteatu egin behar dela. Bileran bertan, aurreikusten diren fase berriak helarazi zitzaizkigun eta talde guztiak teknikariekin proposamenak konpartitzeko arazorik ez genuela adierazi genuen, beti ere, informazioa denboran eta osotasunean helarazten bazitzaizkigun.

Halaber, Gazte Planetik harago, garrantzitsuak diren programen kudeaketaren inguruan ere ausartu beharra zegoela mahaigaineratu zen: zeharkakotasuneko politikak (etxebizitza, berdintasuna, hezkuntza, etab), Gazte Lokalak, Gazte ekipamenduen lehiaketa eta kudeaketa, aurrekontuak, diru-laguntzak, prebentzioa eta sensibilizazioa, informazioa eta komunikazioa, aterpetxeak, etab. Horrez gain, azaldu zitzaigun planifikazioan bertan, martxan jarri gabeko batzorde politikoa aurreikusten zela eta ofizialki eratzeko proposamena ere, begi honez ikusten zela.

Batzorde politikoa osatzeko fasea agertu zen plangintzan urrunegi doala sinetsita eta eraketa egitek prozedurak dituen epeak ezagututa, eratze horri jada heltzea

komenigarria delakoan gaude, are eta gehiago, esan bezala, bileran agertu zen aldeko jarrera egonda.

Horiek horrela, **EH Bildu** taldeak honako **PROPOSAMENA** aurkezten du, Udalbatzaren hurrengo osoko bilkuran azter dadin:

- **Batzorde Ez Iraunkor** bat eratzea, **Donostian inplementatzen diren gazte politikoi jarraipena egiteko eta Udala osatzen dugun ordezkari guztiak, parte hartzeko eta proposamenak egiteko aukera izateko.**
- Batzordearen osaketa: udal talde guztietako ordezkari bana, bozka ponderatuarekin eta beharra ikusten denean, udaleko zerbitzuetako teknikarien zein hiriko eragile, elkarte zein taldeen parte hartze aukerarekin.
- Iraupena: legealdia.
- Bilera araubidea: bilera bat hiru hilabetean behin, gutxienez.

Donostia, 2016ko apirilaren 8a

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea